# Herri Babesarea

Giza eskubideen defendatzaileen
babeserako euskal udal sarea
Red vasca municipal de protección
a defensores/as de derechos humanos



IV. FORO IBILTARIA

## Giza Eskubideen Emakume Defendatzaileak

AZAROAK 11|12|13|14|15|18|19|20|21

IV FORO ITINERANTE

## Mujeres Defensoras de Derechos Humanos

NOVIEMBRE 11|12|13|14|15|18|19|20|21

Antolatzailea

Mundubat
mundubat.org

Parte-hartzaileak

Diru-laguntza

Egilea: Fundación Mundubat

Diseinua: Labox Marketing y Comunicación

# ERAKUNDE BULTZATZAILEAK

## MUNDUBAT

Mundubat gobernuz kanpoko erakundea da, eta erkidegoekin zein herri-erakundeekin lan egiten du, eskubide zein alternatiba sozial eta ekonomikoak aldarrikatzen dituztenean eta partaidetzazko demokrazia sustatzen dutenean. Herritartasunaren ikuspegi kritikoa suspertzen du gure gizartean, eta nazioarteko sare zein aliantzetan oinarritutako lana bultzatzen du. Horretarako elkartasunaren ideia, hain zuzen ere, pertsona guztientzako eskubideen erabileran eta hedapenean oinarrituta dago, genero-berdintasuna kontuan hartuta. Azken 3 hamarkadotan, Mundubatek behar besteko proposamenak garatu ditu, giza eskubideen erakunde defendatzaileei eta erakunde horiek defendatzen dituztenei laguntzeko. Defendatzaileekin egindako lanak baldintza materialak ezarri nahi ditu, hemen entzun dakien, arreta jaso dezaten eta bakean, ordaintzat hartutako justizian, berdintasunean eta giza eskubideetan oinarritutako gizartea lortzeko borroken esperientziak partekatu ditzaten.

www.mundubat.org



FOTOGRAFIA: Guillermo Toriello Fundazioa

# BABES INTEGRAL FEMINISTA, GIZA ESKUBIDEEN DEFENDATZAILEEN DEFENTSARAKO MEKANISMOA.

Babes Integral Feminista (BIF) Erdialdeko Amerikako lurraldeetako giza eskubideen defendatzaileek sortutako eta sustatutako ikuspegia da, eta euren aktibismoagatik zein eskubideen defentsagatik jasaten dituzten arriskuei eta mehatxuei erantzuna ematea dauka helburu. Kontzeptu eta jarduketa horiek babeserako eredu tradizionalen alternatiba moduan sortu dira, eta, askotan, ez dituzte modu integralean edo behar beste lantzen eta ulertzen emakumeen berariazko premiak eta disidentzia, eskubideen eta lurraldeen defentsaren arloan zeresana dutela kontuan hartuta.

Ikuspegi horrek erantzun integrala eman nahi dio jasaten dituzten mehatxuen konplexutasunari. Gainera, proposatzen dituen estrategiak babes fisiko hutsetik haratago doaz, eta indarkeriaren nahiz bereizkeriaren sustraietaraino iristen dira.

Emakume defendatzaile eta aktibistei abegia nahiz laguntasuna emateko moduko ezaugarri argien bidez diseinatu zenez, Herri Babesareak BIF bete-betean txertatzerik ez badauka ere, Babes Integral Feminista ezarri dezake eraginerako, sentsibilizaziorako eta salaketarako ekintzetan. Hori dela eta, ikuspegi eraldatzailea da, eta, indarkeriaren nahiz bereizkeriaren egiturazko sustraietaraino iristen denez, emakume defendatzaile eta aktibisten ahotsak zein esperientziak jartzen ditu erdigunean. Era berean, zeharkako ikuspuntutik ere ezarri daiteke giza eskubideen defentsaren arlo guztietan. Ikuspegi hori, gainera, hegoalde globaleko eta iparraldeko aktibistei ezartzen zaienez, aitortu egiten da zenbait erakundek Europako kontinentean lan egiten duten emakume defendatzaileek pairatutako erasoak dokumentatu dituztela.




FOTOGRAFIA: Red Nacional de Defensoras de DDHH

# HERRI BABESAREA:
# GIZA ESKUBIDEEN DEFENDATZAILEEN BABESERAKO EUSKAL UDAL SAREA

## ZER DA HERRI BABESAREA?

Herri Babesarea giza eskubideen defendatzaileen babeserako euskal udal-sarea da, eta, bertan, Euskadiko zenbait udalek parte hartzen dute. Sareak udal-administrazioen, euskal erakunde sozialen eta hegoalde globaleko giza eskubideen erakunde defendatzaileen arteko ahaleginak koordinatzea dauka helburu, tokian tokitik giza eskubideen defendatzaileak babesten laguntzeko.

Horretarako, sarearen esparruan, sentsibilizaziorako, komunikaziorako, egituraketarako eta eragin politikorako ekintzak garatzen dira, defendatzaileen laguntzarako eta babeserako sareak sortzen eta euskal biztanleak giza eskubideen defentsaren garrantziaren inguruan kontzientziatzen laguntzeko. Herri Babesarearen Foro Ibiltariaren 6. edizioa 2024ko azaroaren 11tik 21era egingo da, eta Euskadiko 14 udalek parte hartuko dute bertan. Foro horren bidez, giza eskubideen erakunde defendatzaile gonbidatuen indarkeriarik gabeko erresistentziak jarriko dira agerian, eta haien babesa sustatuko da erasoen, mehatxuen, jazarpenen eta erailketen aurrean.



FOTOGRAFIA: Guillermo Toriello Fundazioa

## SEXTO FORO ITINERANTE HERRI BABESAREA

**«Mundu zabaleko gobernuek ezin dituzte giza eskubideen defendatzaileak ikusi euren boterearen kontrolerako mehatxua izango balira bezala, aldaketarako eragile onak eta erabakigarriak direlako, gizarteak hobetzeko eta bertako herritarren giza eskubideak defendatzeko orduan»**

*Alan Glasgow, Front Line Defenderseko zuzendari betearazlea.*

Udalek, beste gobernu-erakunde batzuek bezala, zeregin garrantzitsua daukate giza eskubideen sustapenean nahiz babesean eta, horren ondorioz, giza eskubideen defendatzaileen defentsan ere bai.

Hona hemen, besteak beste, udalek defendatzaileen defentsarako garatu ditzaketen hainbat ekintza: politika, arauak eta salaketarako zein babeserako mekanismoak sortzea, Herri Babesarea, esaterako; eta, tokiko erakundeekin batera, sentsibilizaziorako zein hezkuntzarako ekintzak abian jartzea.

Giza eskubideen babesa erantzukizun partekatua denez, gobernu-maila guztiak eta gizarte osoa daude inplikatuta.

Herri Babesareak giza eskubideen urteko agenda munizipalista sortu nahi du, erakunde defendatzaileak babesteko asmoz. Giza eskubideen agenda horretako ekintzen artean, honako hauxe nabarmentzen da:.......

Herri Babesarearen esparruko Foro Ibiltariaren 6. edizio honetan, Bizkaiko, Gipuzkoako eta Arabako 14 udalek ahaleginak eta gaitasunak bateratu dituzte ekimen munizipalista honen bitartez, babesaren arloan duten betebeharrarekin bat egiteko asmoz. Astebetean, sentsibilizaziorako ekintzak egingo dira Herri Babesareako udalerrietako tokiko erakundeekin. Ekintza horiek ez ezik, behar besteko kanpaina ere jarriko da abian, euskal gizartean bertan Herri Babesarea ekimena eta erakunde defendatzaileen giza eskubideen defentsarako lana agerian jartzeko.

Hona hemen Herri Babesarearen Foro Ibiltariaren 6. edizioan parte hartuko duten udalak:



- **ANDOAIN**
- **AMOREBIETA-ETXANO**
- **DURANGO**
- **EA**
- **ELVILLAR**
- **ERMUA**
- **ERRENTERIA**
- **GALDAKAO**
- **HERNANI**
- **IRUN**
- **LAUDIO**
- **OION**
- **PASAIA**
- **URKABUSTAIZ**

2023an, **giza eskubideen defendatzaileen bost hilketatatik** lau Amerika Latinoan gertatu ziren. Halaxe adierazten da Front Line Defenders erakundeak egin berri duen txostenean. Bertan, 300 kasu aipatzen dira, eta, haietatik, **237 Amerika Latinoan gertatu ziren**, baina, batez ere, Kolonbian, Mexikon, Brasilen eta Hondurasen. Zenbaki horiek berriro baieztatzen dute Amerika Latinoa eskualde bortitzena dela gizarte, ingurumen eta giza eskubideen arloko defendatzaileentzat.

Zenbaki horietan, ezin dira zenbatu, baina ahaztu ere ez, gurekin lan egiten duten herrialdeetan eraildako giza eskubideen defendatzaileak, Palestinakoak, esaterako, ezta Gazan egiten ari diren **Genozidioa** ere.




FOTOGRAFIA: Las Mélidas




**“2023an, emakumeen eskubideen eta genero-berdintasunaren aurkako ekintzak areagotu egin zirenez, aurreko 20 urteetan lortutako aurrerakuntza asko jarri ziren arriskuan.”**

Amnesty Internationalek 2024ko apirilean egindako txostena

FOTOGRAFIA: Red Nacional de Defensoras de DDHH

# GIZA ESKUBIDEEN DEFENDATZAILEEN BABESARI BURUZKO ADIERAZPEN INSTITUZIONALA

Giza eskubideak (GGEE) gizaki guztien berezko eskubideak dira, haien arraza, sexua, nazionalitatea, jatorri etnikoa, hizkuntza, erlijioa, gustu sexualak eta afektiboak edozein direla ere. Giza eskubideak banaezinak dira, elkarren arteko menpetasun estua dute eta honako hauexek dira, besteak beste: bizitzeko eta askatasuna edukitzeko eskubidea; esklabotzapean eta torturapean ez egoteko eskubidea; iritzi eta adierazpen askatasuna edukitzeko eskubidea; lurraldeez ingurumen osasungarrian gozatzeko eskubidea; hezkuntzarako, lanerako eta indarkeriarik gabeko bizitzarako eskubidea.

Estatuek GGEE guztiak babesteko, sustatzeko eta gauzatzeko betebeharra duten arren, planetako eskualde askotan modu larrian urratzen dituztela ikusten dugu egunero. Aldi berean, ikusi ere egiten dugu giza eskubideen defendatzaileak etengabe mehatxatu, eraso, jazarri eta, askotan, hil egiten dituztela.

Edonola ere, babesteko betebeharra ez da estatuetako gobernuen ardura bakarrik. Udal-erakundeek GGEEak sustatzeko eta babesteko betebeharra dute Giza Eskubideen Nazioarteko Zuzenbidearen arloan legerian bertan adierazten den bezala. Horrez gain, gizarte zibiletik hurbil daudenez eta harekin harreman estua dutenez (tokian tokikoak eta globalak bat egitean aukerak ere badituztenez), giza eskubideen defendatzaileen babesean eragin ona duten ekintzak egin beharko lituzkete.

Aukera horiek aztertu ondoren, udalok giza eskubideek maila globalean jasaten duten urraketaren larritasunari buruz hausnartu dugu, eta badakigu nolako ahalmenak dituen sare batek, udal-arloan herritarren jarduketa-eremuaren berreskurapenerako ahaleginak bateratzeko orduan. Gainera, udalen ekintza ere bada garrantzitsua defendatzaileen babesean, haien zaurgarritasuna gero eta handiagoa dela kontuan hartuta. Hori dela eta, gero eta eremu seguru gehiago, zainketa gehiago, nazioarteko agerikotasun handiagoa eta gure udalerriko biztanleen sentsibilizazio handiagoa egon behar dira.

Aurrean adierazitako guztiagatik, udal parte-hartzaileok, adierazpen instituzional honen bidez, HERRI BABESAREA ekimenarekin bat egiten dugu: Giza Eskubideen Defendatzaileen Babeserako Euskal Udal Sarea. Izan ere, udal-administrazioen, euskal gizarte-erakundeen eta hegoalde globaleko giza eskubideen defendatzaileen erakundeen arteko ahaleginak koordinatzea dauka helburu, sentsibilizaziorako, komunikaziorako eta eragin politikorako ekintza bateratuak egiteko eta, horrela, tokian tokitik, giza eskubideen defendatzaileen babesa sustatzeko.



FOTOGRAFIA: Mundubat.

# Mélida Anaya Montes Emakumeen Elkartea

## Las Mélidas

*El Salvador*

www.lasmelidas.org.sv



### Amaranta Margarita Portillo Peña

Erakunde feminista honek emakume heldu eta gazteen jabekuntza sustatzen du, kultura patriarkala eta emakumeen aurkako era guztietako zapalkuntzak zein bidegabekeriak desagerrarazten laguntzeko. Izan ere, aliantza estrategikoak sortzen dituzte mugimendu feministarekin eta mugimendu sozialarekin, naturarekin harmonian dagoen gizarte bidezkoagoa eratzeko asmoz.





FOTOGRAFIA: Las Mélidas

# Guillermo Toriello Fundazioa

*Guatemala*

www.fgtoriello.org.gt



### Lin Valenzuela

Guatemalako lurralde-aniztasuna kontuan hartuta, tokiko garapenerako prozesuak bultzatzen ditu Bake Hitzarmenen esparruan, eta proposamenak egiteko gaitasuna dauka eraldaketa sozial eta demokratikoa sustatzen duten erabakiak hartzeko orduan. Honako arlo hauetan lan egiten du: oroimen historikoa, tokiko boterearen demokratizazioa, partaidetzazko landa-garapena eta sare komunitarioa indartzeko prozesua.



FOTOGRAFIA: Guillermo Toriello Fundazioa

# Defendatzaileak Gara

*Kolonbia*

www.somosdefensores.org

**Astrid Torres Ramírez**

Babeserako eremu honek giza eskubideen arloko gobernuz kanpoko erakundeak ditu osagai. Kolonbian indarkeriapean bizi diren talde sozial eta erkidegoen giza eskubideak defendatzeagatik arriskuan daudenen babeserako proposamen integrala garatzea du helburu.



FOTOGRAFIA: Defendatzaileak Gara

# Saharako Emakumeen Batasun Nazionala

## UNMS

*Mendebaldeko Sahara*

https://saharaoccidental.es/quizas-te-interese/la-union-nacional-de-mujeres-saharauis-unms/



**Mansoura Bachari**

1974an sortu zen, herriak bat egin behar zuela ikusi zuelako, autodeterminaziorako eskubidea lortzeko eta emakumeek Saharako gizartean nahiz garapenean duten protagonismoa agerian jartzeko. Horretarako, besteak beste, emakumeen partaidetza sustatzen dute era bateko eta besteko eremu politiko, soziokultural eta profesionaletan.



FOTOGRAFIA: Saharako Emakumeen Batasun Nazionala

# Giza Eskubideen Defendatzaileen Sare Nazionala

*Honduras*

https://redefensorashn.red

### Diana Carolina Maradiaga Amador

Honduraseko giza eskubideen emakume defendatzaileen borrokarako eremu kolektiboa da. Bete-betean lan egiten du, ekintzak bultzatzeko eta ahotsen, salaketen nahiz eskuratutako jakintzaren berri emateko. Emakume defendatzaileak arriskuan daudela jartzen du agerian, eta haien nahiz arriskuan dauden beste batzuen autobabesa nahiz autozainketa jorratzen ditu. Herri-komunikazio feminista garatzen du, irratsaioaren eta sare sozialen bidez haien pentsaera, sentipenak eta egikerak jendaurrean agerian jartzeko asmoz.



FOTOGRAFIA: Red Nacional de Defensoras de DDHH

**Feminista, Palestina.**



# EGITARAUA

## Azaroaren 11 astelehena

**UDALERRIA_** URKABUSTAIZ (IZARRA)

*Defendatzailea:*

***Mansoura Bachari*** *Saharako Emakumeen Batasun Nazionala, Mendebaldeko Sahara*

## Azaroaren 12a asteartea

**UDALERRIA_** GASTEIZ

*Defendatzaileak:*

***Mansoura Bachari*** *Saharako Emakumeen Batasun Nazionala, Mendebaldeko Sahara*

***Lin Valenzuela*** *Guillermo Toriello Fundazioa, Guatemala*

***Astrid Torres Ramírez*** *Defendatzaileak Gara, Kolonbia*

***Amaranta Margarita Portillo*** *Mélida Anaya Montes Emakumeen Elkartea "Las Mélidas", El Salvador*

***Diana Carolina Maradiaga*** *Giza Eskubideen Defendatzaileen Sare Nazionala, Honduras*

***Yussi*** *Feminista, Palestina*

## Azaroaren 13a asteazkena

**UDALERRIA_** PASAI ANTXO

*Defendatzaileak:*

***Amaranta Margarita Portillo*** *Mélida Anaya Montes Emakumeen Elkartea "Las Mélidas", El Salvador*

***Diana Carolina Maradiaga*** *Giza Eskubideen Defendatzaileen Sare Nazionala, Honduras*

***Yussi*** *Feminista, Palestina*

**UDALERRIA_** TRINTXERPE

*Defendatzaileak:*

***Amaranta Margarita Portillo*** *Mélida Anaya Montes Emakumeen Elkartea "Las Mélidas", El Salvador*

***Diana Carolina Maradiaga*** *Giza Eskubideen Defendatzaileen Sare Nazionala, Honduras*

***Yussi*** *Feminista, Palestina*

## Azaroaren 13a asteazkena

**UDALERRIA_** AMOREBIETA-ETXANO

*Defendatzaileak:*

***Mansoura Bachari*** *Saharako Emakumeen Batasun Nazionala, Mendebaldeko Sahara*
***Lin Valenzuela*** *Guillermo Toriello Fundazioa, Guatemala*
***Astrid Torres Ramírez*** *Defendatzaileak Gara, Kolonbia*

## Azaroaren 14a osteguna

**UDALERRIA_** ERMUA

*Defendatzaileak:*

***Mansoura Bachari*** *Saharako Emakumeen Batasun Nazionala, Mendebaldeko Sahara*
***Lin Valenzuela*** *Guillermo Toriello Fundazioa, Guatemala*
***Astrid Torres Ramírez*** *Defendatzaileak Gara, Kolonbia*
***Amaranta Margarita Portillo*** *Mélida Anaya Montes Emakumeen Elkartea “Las Mélidas”, El Salvador*
***Diana Carolina Maradiaga*** *Giza Eskubideen Defendatzaileen Sare Nazionala, Honduras*
***Yussi*** *Feminista, Palestina*

## Azaroaren 15a ostirala

**UDALERRIA_** ANDOAIN

*Defendatzaileak:*

***Lin Valenzuela*** *Guillermo Toriello Fundazioa, Guatemala*
***Amaranta Margarita Portillo*** *Mélida Anaya Montes Emakumeen Elkartea “Las Mélidas”, El Salvador*
***Yussi*** *Feminista, Palestina*

**UDALERRIA_** ELVILLAR

*Defendatzaileak:*

***Mansoura Bachari*** *Saharako Emakumeen Batasun Nazionala, Mendebaldeko Sahara*
***Lin Valenzuela*** *Guillermo Toriello Fundazioa, Guatemala*
***Astrid Torres Ramírez*** *Defendatzaileak Gara, Kolonbia*
***Amaranta Margarita Portillo*** *Mélida Anaya Montes Emakumeen Elkartea “Las Mélidas”, El Salvador*
***Diana Carolina Maradiaga*** *Giza Eskubideen Defendatzaileen Sare Nazionala, Honduras*
***Yussi*** *Feminista, Palestina*

## Azaroaren 16a larunbata

UDALERRIA_ GALLARTA

*Defendatzaileak:*

***Mansoura Bachari*** *Saharako Emakumeen Batasun Nazionala, Mendebaldeko Sahara*
***Lin Valenzuela*** *Guillermo Toriello Fundazioa, Guatemala*
***Astrid Torres Ramírez*** *Defendatzaileak Gara, Kolonbia*
***Amaranta Margarita Portillo*** *Mélida Anaya Montes Emakumeen Elkartea "Las Mélidas", El Salvador*
***Diana Carolina Maradiaga*** *Giza Eskubideen Defendatzaileen Sare Nazionala, Honduras*
***Yussi*** *Feminista, Palestina*

## Azaroaren 18a astelehena

UDALERRIA_ LAUDIO

*Defendatzaileak:*

***Mansoura Bachari*** *Saharako Emakumeen Batasun Nazionala, Mendebaldeko Sahara*
***Lin Valenzuela*** *Guillermo Toriello Fundazioa, Guatemala*
***Astrid Torres Ramírez*** *Defendatzaileak Gara, Kolonbia*
***Amaranta Margarita Portillo*** *Mélida Anaya Montes Emakumeen Elkartea "Las Mélidas", El Salvador*
***Diana Carolina Maradiaga*** *Giza Eskubideen Defendatzaileen Sare Nazionala, Honduras*
***Yussi*** *Feminista, Palestina*

## Azaroaren 19a asteartea

UDALERRIA_ GALDAKAO

*Defendatzaileak:*

***Mansoura Bachari*** *Saharako Emakumeen Batasun Nazionala, Mendebaldeko Sahara*
***Lin Valenzuela*** *Guillermo Toriello Fundazioa, Guatemala*
***Astrid Torres Ramírez*** *Defendatzaileak Gara, Kolonbia*
***Amaranta Margarita Portillo*** *Mélida Anaya Montes Emakumeen Elkartea "Las Mélidas", El Salvador*
***Diana Carolina Maradiaga*** *Giza Eskubideen Defendatzaileen Sare Nazionala, Honduras*

## Azaroaren 21a osteguna

UDALERRIA_ HERNANI

*Defendatzailea:*

***Yussi*** *Feminista, Palestina*

# EGITARAUA
## Bilera instituzionalak

### Azaroaren 11, astelehena

**Harrera Urkabustaizko Udalean**

ERAKUNDE DEFENDATZAILEAK

**Mélida Anaya Montes "Las Mélidas" Emakumeen Elkartea**, El Salvador

**Guillermo Toriello Fundazioa**, Guatemala

**Defendatzaileak Gara**, Kolonbia

**Saharako Emakumeen Batasun Nazionala-UNMS**, Mendebaldeko Sahara

**Red Nacional de Defensoras de DDHH**, Honduras

### Azaroaren 13a, azteazkena

**Harrera Pasaiako Udalean**

ORGANIZACION DEFENSORA

**Mélida Anaya Montes "Las Mélidas" Emakumeen Elkartea**, El Salvador

**Red Nacional de Defensoras de DDHH**, Honduras

**Feminista**, Palestina

**Harrera Amorebieta-Etxanoko Udalean**

ORGANIZACION DEFENSORA

**Guillermo Toriello Fundazioa**, Guatemala

**Defendatzaileak Gara**, Kolonbia

**Saharako Emakumeen Batasun Nazionala-UNMS**, Mendebaldeko Sahara

## Azaroaren 14a, osteguna

### Harrera Ermuko Udalean

ERAKUNDE DEFENDATZAILEAK

**Mélida Anaya Montes "Las Mélidas" Emakumeen Elkartea**, El Salvador

**Guillermo Toriello Fundazioa**, Guatemala

**Defendatzaileak Gara**, Kolonbia

**Saharako Emakumeen Batasun Nazionala-UNMS**, Mendebaldeko Sahara

**Red Nacional de Defensoras de DDHH**, Honduras

**Feminista**, Palestina

## Azaroaren 15, ostirala

### Harrera Andoaingo Udalean

ERAKUNDE DEFENDATZAILEAK

**Mélida Anaya Montes "Las Mélidas" Emakumeen Elkartea**, El Salvador

**Guillermo Toriello Fundazioa**, Guatemala

**Feminista**, Palestina

### Harrera Oioneko Udalean

ERAKUNDE DEFENDATZAILEAK

**Defendatzaileak Gara**, Kolonbia

**Saharako Emakumeen Batasun Nazionala-UNMS**, Mendebaldeko Sahara

**Red Nacional de Defensoras de DDHH**, Honduras

### Harrera Billarreko Udalean

ERAKUNDE DEFENDATZAILEAK

**Mélida Anaya Montes "Las Mélidas" Emakumeen Elkartea**, El Salvador

**Guillermo Toriello Fundazioa**, Guatemala

**Defendatzaileak Gara**, Kolonbia

**Saharako Emakumeen Batasun Nazionala-UNMS**, Mendebaldeko Sahara

**Red Nacional de Defensoras de DDHH**, Honduras

**Feminista**, Palestina

## Azaroaren 18a, astelehena

### Harrera Laudioko Udalean

ERAKUNDE DEFENDATZAILEAK

**Mélida Anaya Montes "Las Mélidas" Emakumeen Elkartea**, El Salvador

**Guillermo Toriello Fundazioa**, Guatemala

**Defendatzaileak Gara**, Kolonbia

**Saharako Emakumeen Batasun Nazionala-UNMS**, Mendebaldeko Sahara

**Red Nacional de Defensoras de DDHH**, Honduras

**Feminista**, Palestina

### Harrera Eako Udalean

ERAKUNDE DEFENDATZAILEAK

**Mélida Anaya Montes "Las Mélidas" Emakumeen Elkartea**, El Salvador

**Guillermo Toriello Fundazioa**, Guatemala

**Defendatzaileak Gara**, Kolonbia

**Saharako Emakumeen Batasun Nazionala-UNMS**, Mendebaldeko Sahara

**Red Nacional de Defensoras de DDHH,** Honduras

**Feminista**, Palestina

## Azaroaren 19a, asteartea

### Harrera Galdakaoko Udalean

ERAKUNDE DEFENDATZAILEAK

**Mélida Anaya Montes "Las Mélidas" Emakumeen Elkartea**, El Salvador

**Guillermo Toriello Fundazioa**, Guatemala

**Defendatzaileak Gara**, Kolonbia

**Saharako Emakumeen Batasun Nazionala-UNMS**, Mendebaldeko Sahara

**Red Nacional de Defensoras de DDHH**, Honduras

## Azaroaren 20a, asteazkena

### Harrera Errenteriako Udalean

ERAKUNDE DEFENDATZAILEAK

**Saharako Emakumeen Batasun Nazionala-UNMS**, Mendebaldeko Sahara

**Red Nacional de Defensoras de DDHH**, Honduras

**Feminista**, Palestina

### Harrera Durangoko Udalean

ERAKUNDE DEFENDATZAILEAK

**Mélida Anaya Montes "Las Mélidas" Emakumeen Elkartea**, El Salvador

**Guillermo Toriello Fundazioa**, Guatemala

**Defendatzaileak Gara**, Kolonbia

## Azaroaren 21a, osteguna

### Harrera Hernaniko Udalean

ERAKUNDE DEFENDATZAILEAK

**Guillermo Toriello Fundazioa**, Guatemala

**Defendatzaileak Gara**, Kolonbia

**Saharako Emakumeen Batasun Nazionala-UNMS**, Mendebaldeko Sahara

**Red Nacional de Defensoras de DDHH**, Honduras

**Feminista**, Palestina

**Herri Babesarea**

Giza eskubideen defendatzaileen
babeserako euskal udal sarea
Red vasca municipal de protección
a defensores/as de derechos humanos